A.B.E.

Amara Berriko egunkaria

47. zb

2007ko otsailaren 16a,ostirala

www.amaraberri.org
abcomenius@euskalnet.net

Editoriala

Kaixo lagunok!!!!!!!! Gu Nerea eta Javier gara. A.B.E. Honetan gauza asko aurkituko dituzue eta espero dugu asko gustatzea.

AGUR!!!

Erredaktoreak

NEREA ETA JAVIER.

REKARTE

Rekartek esan du oraindik itxaropenak daudela irabazteko eta taldea duen guztia eman behar duela. Zubietan entrenamendu onak egin ditu Realak baina ez dute puntuak irabazten. Hau da Rekartek bizi izan duen denboraldirik zaiena lehenengo mailan.

Erredaktorea:Iker

Emakumeen aurkako indarkeria

Asteartean emakume bat hil zen bikotekideak sastatu ostean. Intentsiboetako Unitatean egon zen eta asteazkenean hil zen. 33 urte zeuzkan eta 9 urteko ume bat zeukan, aurretik izandako harreman baten ondorioz jaiotakoa.

Erredaktorea Iker

aurkibidea

1.- PORTADA: Rekarte, emakumeen aurkako indarkeria

2.- ELKARRIZKETA: IRUNERI.

3.- LUMAREN KILIMA: Sentsazio zirraragarria.

4.- GU ERE IDAZLE: Gurutzegrama.

Gure eskola

ALBISTE ONA ETA TXARRA

Gaur ihauteriak dira baina badago beste albiste bat ere, gure taldeko Xabier Alberrok gaur eskumuturra puskatu du. ANIMO XABI!!!

ELKARRIZKETA IRUNERI

elkarrizketa

1.-Zenbat urte daramatzazu eskola honetan?
-Eskola honetan 15 urte daramatzat.
2.-Umerik ba al duzu?
-Bai, bi seme-alaba ditut.
3.-Nola deitzen dira?
-Naroa eta Sara deitzen dira.
4.-Zenbat urte dituzte?
-Sarak 9 urte ditu eta Naroak 14 urte ditu.
5.-Morlansera datoz?
-Sara bai, baina Naroa ez.
6.-Gustatzen al zaizkizu Morlanseko umeak?
-Bai, asko, oso jatorrak zarete.
7.-Morlansera etorri baino lehen, ze eta zenbat eskoletan egon zara?
-Orion, Tolosan eta Berauen.
8.-Gustora al zaude gurekin, Javier eta Nerearekin?
-Bai oso pozik nago, batzuetan oso berritsuak izan arren.

Lumaren kilima

Sentsazio Zirraragarria

Bakarrik nago Urbasako baso erdian. Ez dut inor ikusten; ahul sentitzen naiz. Bakardadeak gaizki sentiarazten nau. Mahai batean eserita nago. Nire parean ermita bat dago. Behin eta berriro begiratzen dut ingurura. Nire inguruan hesia daukat. Momentu honetan zezen plaza batean antzera sentitzen naiz, hil nahiko balute bezala. Lurrean hostoak daude. Buruari nor naizen galdetzen diot. Buruak ez dit erantzuten. Izardi hotza erortzen zait aurpegitik. Ez ditut hankak sentitzen beldurrarengatik. Norbaitek ikutu nau. Orduan esnatu egin naiz. Dena amets bat izan da. Ohea bustia dago eta ni hotzez nago. Amak ondo nagoen galdetu dit. Ondo nagoela esan diot. Ohetik atera eta gosaltzera joan naiz. Gosaria momentu horretan bizitza osoan gertatu zaidan gauzarik onena izan da.



Egilea: Maialen Zubia

Gu ere idazle gurutzegrama

Bertikala:

A.-Argia ematen digun izarra.
-4aren erdia.

Horizontalak:

1.-Bizitzeko tokia.
-10aren erdia.
2.-Binaka datorren fruta gorria.
-Seigarren nota musikala.
3.-Bizitzeko behar den edaria.
-Nire izena (Miguel erderaz).
4.-Oxigenoa ematen digun landare handia.
-Alfabetoko azken izkia.
5.-Gauzak gordetzeko erabiltzen dena.
-Indioek erabiltzen zuten arma akabatzeko.
6.-Unibrtsoan dagoen gauza borobil eta distiratsua.
-Lehenengo zenbakia.
7.-Antzinan egurra mozteko erabiltzen zuten tresna.
-Alfabetoko lehenengo izkia.
8.-Ipodromoan korrika egiten duen animalia.
-Lehenengo nota.
9.-Frantziako Turra egiteko erabiltzen den gauza.
10.-Gazia da eta munduaren erdia baino gehiago dagoen lekua.
-8aren erdia.

Egilea: Mikel Sarasola

	A									
1						■				
2								■		
3				■						■
4									■	
5						■				
6							■			
7								■		■
8	■							■		
9										■
10							■			